

V - BESTELAKOAK

KIROLARABA FUNDAZIOA

Arabako etorkizun handiko kirolarientzako laguntzen 2024rako deialdia

1. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea da Kirolaraba Fundazioak emango dituen gauzako laguntzak arautzea. Arabako etorkizun handiko kirolariei laguntzeko hainbat zerbitzutan erabiltzeko laguntza ekonomikoa ematean datza.

Deialdi honen helburua da kirol karrera garatzen laguntzea 2024. urtean etorkizun handiko kirolari izendatutakoei.

Hori guztia, honako hauetan xedatutakoaren arabera: Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak (Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, 2019ko azaroaren 20ko 134. ALHAOn argitaratua, eta martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuaren bidez aldatua), Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua eta deialdi hau.

2. artikulua. Emateko prozedura

Laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da; hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiak 2024rako etorkizun handiko kirolari izendatu dituen eta deialdi honetan jasotako onurak lortu nahi dituztela adierazten duten pertsonen artekoa.

3. artikulua. Onuradunak eta laguntza jasotzerik ez dutenak

1. Laguntzak jaso ahal izango dituzte Arabako Foru Aldundiak 2024rako etorkizun handiko kirolari izendatu dituen eta izendapena eragin zuen kirol jarduerari aldi horretan eusten dioten kirolariek.

Edonola ere, eskatzaileek indarrean izan beharko dute dagokion kirol modalitateko Arabako federazioak izapidetutako federazio lizentzia (2023/2024 denboraldikoa edo 2024. urtekoa).

Hori gorabehera, aurreko paragrafoan ezarritako betekizunetik salbuetsi ahal izango dira, aldeztatik justifikazio idazkia aurkeztuta, aldi baterako eta ezinbestean lizentzia Arabako Lurralde Historikokoa ez den kirol federazioren batean lortu behar duten eskatzaileak, betekizun hori bete ezean ezin izango bailukete beren kirol jarduna hobetu.

2. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, berariaz, deialdi honetan eskatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten kirolariak, eta, bereziki, honako hauek:

a. Arabako Foru Aldundiak etorkizun handiko kirolari izendatu ez dituenak.

b. Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian jasotzen diren egoeretan dauden pertsonak.

4. artikulua. Laguntzen guztizko zenbatekoa

Laguntzen guztizko zenbatekoak ezingo du inola ere gaintitu helburu horretarako jarri den zenbatekoa, hau da, 20.000,00 euro. Kirolaraba Fundazioaren 2024ko aurrekontuaren kontura izango da zenbateko hori.

Aurrekontua hori izateak ez du esan nahi Kirolaraba Fundazioak osorik kontsumitu behar duenik.

5. artikulua. Diruz laguntzeko gastuak eta justifikazioa

1. Dirulaguntza kreditu bat izango da kirolari bakoitzarentzat, eta hiru hilean behin ordainduko da, erabileraren justifikazioaren arabera. Ordainketa hori egiteko, Arabako Foru Aldundiko kirol zerbitzuko burutzak justifikazio-txosten bat egingo du, eta, bertan, kirolari bakoitzari epe hauetan ordaindu beharreko zenbatekoak adieraziko dira:

- Lehen epea: 2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 20ra bitartean egindako gastuak. Justifikazioa 2024ko martxoaren 31ra arte aurkeztu beharko da (egun hori barne).

- Bigarren epea: 2024ko martxoaren 21etik ekainaren 15era egindako gastuak. Justifikazioa 2024ko ekainaren 25a arte aurkeztu beharko da (egun hori barne).

- Hirugarren epea: 2024ko ekainaren 16tik irailaren 15era egindako gastuak. Justifikazioa 2024ko irailaren 25era arte aurkeztu beharko da (egun hori barne).

- Laugarren epea: 2024ko irailaren 16tik abenduaren 15era egindako gastuak. Justifikazioa 2024ko abenduaren 23ra arte aurkeztu beharko da (egun hori barne).

Ez da onartuko ezarritako datetatik kanpo egindako gasturik.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak artikuluko honen 2. apartatuan zerrendatzen direnak dira, eta deialdian ezarritako epean eta mugekin eskuratu ahal izango dituzte.

2. Diruz lagunduko diren gastuak ondorengoak dira:

a) Kirol psikologiako zerbitzua.

b) Kirol nutrizioko zerbitzua.

c) Osasun azterketen, traumatologia kontsultaren, fisioterapiaren eta laguntza fisiologikoaren zerbitzua.

d) Podologia zerbitzua.

e) Prestakuntza fisikoko zerbitzua. Faktorek kirol-entrenamenduetan espezializatutako enpreenak edo profesionalenak izan behar dute. Ondorioz, kanpoan geratzen dira federazio, klub, kirol-elkarte eta antzeko ezaugarriak dituzten irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuetatik datozen guztiak.

3. Gastua honela justifikatuko da:

— Fakturak edo gastuaren agiri baliokideak: eskatzailearen izenean egon beharko dute. Ez dira gastuen justifikazio gisa onartuko honako datu hauek argi eta garbi identifikatuta ez dauden fakturak edo ordainagiriak:

- Jaulkitzailea, bere izen edo izen sozialarekin eta NAN edo IFZrekin.

- Hartzailea, izena edo sozietate-izena eta NAN edo IFZ.

- Gastuaren xedea.

- Data.

- Faktura-zenbakia.

— Fakturak 500,00 eurotik gorakoak badira (BEZik gabe), honako agiri hauetako bat aurkeztu beharko da ordainketa justifikatzeko:

- Banku-ziurtagiria, ordainketaren edo transferentziaren zenbatekoa, data eta onuraduna gutxienez zehazten dituenak.

- Eskudirutan ordainduz gero, faktura egiten duenaren ziurtagiria, faktura-zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa-data zehaztuta.

- Posta arruntez jasotako banku-laburpenak.

- Kontu korronteen libreten kopia, dagozkion mugimenduekin.
- E-mail bidez edo transferentzia-agindu telematikoen bidez jasotako banku-laburpen elektronikoak.
- Faktura egin duen enpresaren zigilua duten fakturak, faktura ordaindu dela adierazten dutenak.
 - Ez dira onartuko 2024ko ekitaldirako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoa edo handiagoa duten eragiketen eskudiruzko ordainketak, edo haien kontrabaliaoa atzerri-monetan dutenak.
 - Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasun-ematea edo zerbitzu-prestazioa zatikatu ahal izan den eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.
- 4. Onuradun bakoitzak erabili ahal izango duen kreditu muga deialdiaren ebazpenarekin batera onetsiko da, eta deialdi honen 10.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu da.

6. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaera etorkizun handiko kirolari izendatutako pertsonak aurkeztu beharko du. Kirolaria adingabea bada, aitak, amak edo tutoreak egin beharko du. Eskaera ondorengo eratan aurkeztu ahalko da:

a. Aurrez aurre ondorengo erregistroetariko batean:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Foru Ogasunak Vitoria-Gasteizen, Laudion eta Guardian dituen bulegoetako erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.

b. Telematikoki, egoitza elektronikotik eskura daitekeen izapide espezifikotik. Horretarako, pertsona eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Argibide gehiago, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>. Nolanahi ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duena aplikatuko da.

2. Deialdi honetarako eskaera aurkezteak Kirolaraba Fundazioak etorkizun handiko kirolarien eskura jarriko dituen zerbitzuen onuradun izateko borondatea adieraztea dakar.

7. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Deialdi honen xede diren zerbitzuak eskuratzeko, eskaera orria behar bezala beteta aurkeztu beharko da (I. eranskina), salbu eta eskaera egoitza elektronikotan aurkezten bada horretarako prestatutako eta 6. artikuluan deskribatutako berariazko prozeduraren bidez.

2. Etorkizun handiko kirolariak sustatzeko irudiak tratatzeko baimena (deialdiaren II. eranskina).

3. Kirol Zerbitzuak ofizios egiaztatuko du eskatzaileek egunean dituztela Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, bai eta eskatzailearen nortasun-datuak ere, eta, adingabea bada, etorkizun handiko duen kirolariaren nortasun-datuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Egiaztatze horien aurka egiten badu eskatzaileak, gertakari horiek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen moduan (Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatua, azken xedapenetako hamabigarrenaren arabera). Arabako Lurralde Historikotik kanpoko eskatzaileek dagokion ogasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Gizarte Segurantzaren ziurtagiriaren kasuan, eskatutako laguntza 3.000,00 eurotik gorakoa bada soilik izango da beharrezkoa.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko 15 egun balioduneko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

9. artikulua. Organo eskudunak

1. Prozedura hasteko organo eskuduna Kirolaraba Fundazioaren patronatua izango da, laguntzen deialdia onesteko egintzaren bidez.

2. Prozeduraren instrukzioa egiteko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua izango da. Zerbitzu horri dagokio eskatzaileek eta bidalitako dokumentazioak deialdi honetan ezarritako betekizun tekniko eta administratiboak betetzen dituztela egiaztatzea.

3. Eskaerak balorazio batzorde batek balioetsiko ditu. Batzorde horren osaera deialdi honen 10. artikuluan arautzen da.

4. Laguntzak emateko prozedura Kirolaraba Fundazioaren patronatuak ebatziko du, eta lehendakariari eskuordetuko dio eginkizun hori.

5. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka jartzen diren berraztertzeo errekurtsioak ebazteko eskumena Kirolaraba Fundazioaren patronatuak izango du, eta lehendakariari eskuordetuko dio eginkizun hori.

10. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

1. Balorazio batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Batzorde hori osatzeko kontuan hartuko da Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 3.7 artikuluan ezarritakoa, eta honako kide hauek izango ditu:

– Batzordeburua: Arabako Foru Aldundiko Kiroleko zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Kidea: kirol-zerbitzuko burutza, edo hark eskuordetzen duen pertsona, eta zerbitzu horri atxikitako teknikarien bi kide.

– Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko zerbitziburua edo hark eskuordetzen duena; hitza izango du, baina botorik ez.

2. Laguntzaren banaketa honela egingo da: deialdiari esleitutako guztizko zenbatekoa zati deialdi honek ematen dituen onurak eskuratzeko betekizunak betetzen dituzten eskatzaile guztiak. Horren emaitza 2024. urtean kontsumitu beharreko banakako kreditu ekonomikoa izango da.

3. Balorazio batzordeak txosten bat emango du, emaitza zehazten duena.

4. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, eta, horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea izango du, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez badu, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

5. Laguntza emateko ebazpenean laguntza zein eskatzaileari eman zaion zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

6. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikulua xedatutakoari jarraikiz.

7. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka aukerako berraztertzeo errekurtsioa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatutakoaren arabera, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, aipatutako ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua. Laguntza onartzea edo uko egitea

Onuradunek laguntzak onartu dituztela ulertuko da, baldin eta idatziz uko egiten ez badiete.

Hala ere, 2024ko ekainaren 30erako onuradunen bat ez bada emandako kreditua erabiltzen hasi, laguntzari uko egin diola ulertuko da. Kasu horretan, uko egin duten onuradunei esleitutako zenbatekoa proportzionalki banatuko da gainerako onuradunen artean, eta, horrela, pertsona bakoitzeko gehieneko kreditua handituko da.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan jasotako laguntzak bateragarriak izango dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten dirulaguntzekin eta laguntzekin, bai eta Arabako Foru Aldundiko bertako beste sail batzuek ematen dituztenekin ere.

Onuradunak jakinarazi egin beharko dio laguntza ematen duen organoari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duen edo eskuratzeko eskaerarik egin dion estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikori edo edozein entitate edo erakunde pribaturi.

13. artikulua. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Horrez gainera, fundazioaren web orrian ere jarriko da: www.kirolaraba.eus.

14. artikulua. Interpretazioa

Deialdi hau interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza Kirolaraba Fundazioak ebatziko du.

15. artikulua. Eskuordetzea

Bat etorri deialdi honen 9. artikuluan jasotakoarekin, laguntzak emateko prozeduraren ebazpena patronatuko lehendakariaren esku uzten da, bai eta ebazpen horien aurka jartzen diren berraztertze errekurtsoen ebazpena ere.

16. artikulua. Azken klausula


Laguntza honen onuradun den kirolariak Kirolaraba Fundazioaren publizitatea sartu beharko du 2024an (kirol-ekipamendua, kartelak, web-orria edo beste edozein hedabide).

Deialdi honetan ezarritako prozedura honako hauei lotzen zaie: Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua, eta ondorengo aldaketak; Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak dirulaguntzen arloan arautzen dituen xedapenak, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoa, bai eta aplikatzekoa den arau oro ere.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 15a

Kirolaraba Fundazioaren presidentea
ANA M. DEL VAL SANCHO

Patroia
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	<p>Etorkizun handiko kirolarientzako laguntza Eskabidea (I. eranskina)</p>	<p>2024</p>
	<p>Ayuda para Deportistas Promesa. Solicitud (Anexo I)</p>	


ESKATZAILEA (adingabea bada, eskaera aitak, amak edo tutoreak egingo du)
SOLICITANTE (en caso de que sea menor de edad la solicitud la realizará el padre, madre o tutor)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input checked="" type="checkbox"/> IFZ (NANa, AIza, ...) NIF (DNI, NIE...)	Identifikazio zk. ■ N° identificativo	Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre			
Izena ■ Nombre	Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido			
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)	Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio	Herría ■ Localidad	PK ■ C. P.	
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico			

KIROLARIA (ADINGABEA BADA) ■ DEPORTISTA (EN CASO DE SER MENOR DE EDAD)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input checked="" type="checkbox"/> IFZ (NANa, AIza, ...) NIF (DNI, NIE...)	Identifikazio zk. ■ N° identificativo	Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre			
Izena ■ Nombre	Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido			
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)	Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio	Herría ■ Localidad	PK ■ C. P.	
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico			

Orria ■ Hoja 1/4

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	Etorkizun handiko kirolarientzako laguntza Eskabidea (I. eranskina)	2024
	Ayuda para Deportistas Promesa. Solicitud (Anexo I)	

Kiolaraba Fundazioak etorkizun handiko kirolari izendatutako en eskura jarriko dituen zerbitzuen onuraduna izan nahi dut.

Solicito acceder a los servicios que la Fundación Kiolaraba pondrá a disposición de las personas designadas deportistas promesa.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA ■ INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta:

- T38 KIROLARIAK tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: Kirola kudeatzea, eta kirolaren arloko beka eta dirulaguntzak ematea. Kirol prestakuntzako ikastaroak egitea. Jarduerak ikuskatzea. Iradokizunak eta zalantzak kudeatzea.

- T39 HIRUGARRENAK ETA INTERESATUAK tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: aurrekontu eta aurrekontu kanpoko burutzapen eragiketarik izapidetzea, hala gastuenak nola sarrerarenak.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan. Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz - Araba).

Informazio gehiago eskuratzeko:
<https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>


Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de.

- T38 DEPORTISTAS para la finalidad de gestión del deporte, concesión de becas y subvenciones relacionadas con actividades y entidades deportivas. Realización de cursos de formación deportiva. Inspección de actividades. Gestión de sugerencia, dudas.

- T39 TERCEROS E INTERESADOS para la finalidad de la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria o extrapresupuestaria, tanto de gastos como ingresos.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación y portabilidad que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, (Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz, Álava).

Para más información: <https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	<p>Etorkizun handiko kirolarientzako laguntza Eskabidea (I. eranskina)</p> <p>Ayuda para Deportistas Promesa. Solicitud (Anexo I)</p>	<p>2024</p>
--	--	--------------------


ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ■ DECLARACIÓN RESPONSABLE
(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

ADIERAZTEN DUT	DECLARO
Aurkeztutako datuak egiazkoak dira eta horiek baieztatzeko behar diren egiaztagirri guztiak emango ditut; gainera, eskabidea aztertzeo eskatzen zaidan informazio osagarri guztia aurkezteko konpromisoa hartzen dut.	<input type="checkbox"/> Los datos presentados son ciertos y me comprometo a facilitar las comprobaciones necesarias para verificar los mismos y a aportar toda la información complementaria que se solicite con el fin de analizar su solicitud.
Ez nago deialdian ezarritako bazterte egoeretakoa batean ere.	<input type="checkbox"/> No incurrir en ninguna de las situaciones de exclusión establecidas en la convocatoria.
Egunean nago Arabako Foru Ogasunarekiko betebeharrak eta, 3.000 € baino gehiagoko dirulaguntzatan, Gizarte Segurantzarekikoetan.	<input type="checkbox"/> Tener regularizada la situación con la Hacienda Foral de Álava y, en caso de subvenciones superiores a 3.000 €, con la Seguridad Social.
Ez naiz jasotzen ari xede eta helburu bererako administrazio publikoek edo erakunde pribatuek emandako laguntzarik edo dirulaguntzarik.	<input type="checkbox"/> No estar recibiendo ninguna ayuda o subvención con este mismo objeto y finalidad concedida por administraciones públicas o entidades privadas.
Ez dut zehapen administratibo edo penalik dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten didan epai irmo baten bidez, ez eta horretarako ezgaitzen nauen legezko debekurik ere, berariaz aipatuta generoagatik edo sexu orientazioagatik diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak (dagokion zehapenean ezarritako aldiak).	<input type="checkbox"/> No estar sancionada penal o administrativamente mediante sentencia firme que le imposibilite obtener subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con mención expresa a las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de género u orientación sexual (durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción).
Ez dut konkurtso deklarazioa eskatu, ez naute kaudimengabetsat jo edozein prozeduratan, ez nago konkurtsoan deklaraturik, ez nago esku hartze judizialaren mende edo ez naute desgaitu Konkurtso Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitutza aldia amaitu gabe.	<input type="checkbox"/> No haber solicitado la declaración de concurso, no haber sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no hallarse declarada en concurso, no estar sujeta a intervención judicial o no haber sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal, sin que haya concluido el periodo de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.
Ez dut eragin, errudun deklaraturik izateko kausagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontratuen suntsiarazpen irmorik.	<input type="checkbox"/> No haber dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.
Pertsona fisikoa, merkataritzaren sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daude bateraezintasun kasuren batean, gai horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.	<input type="checkbox"/> No estar incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de incompatibilidades en los términos establecidos en la normativa que regule estas materias.
Egunean ditut dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.	<input type="checkbox"/> Hallarse al corriente del pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jaso den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkeztu erantzukizunpeko adierazpena edo deklaratu dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).

Orria ■ Hoja 3/4

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	Etorkizun handiko kirolarientzako laguntza Eskabidea (I. eranskina)	2024
	Ayuda para Deportistas Promesa. Solicitud (Anexo I)	

OFIZIOZ EGIAZTATZEA ■ COMPROBACIÓN DE OFICIO:
(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

**Aplikatu beharreko araudiaren arabera,
Fundación Kirolaraba Fundazioak honako datu
hauek egiaztatuko ditu administrazio
eskudunean:**

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen inguruko datuak (3.000 €-tik gorako laguntza eskaeratarako).
- Zerga betebeharrak egunean izatearen inguruko datuak.
- Eskatzailearen nortasun datuak.
- Etorkizun handiko kirolariaren nortasun datuak.

**De acuerdo con la normativa aplicable, la
Fundación Kirolaraba Fundazioa comprobará en
la administración competente los siguientes
datos:**

- Estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social (para solicitudes de ayuda superiores a los 3.000 €).
- Estar al corriente de las obligaciones tributarias.
- Datos de identidad de la persona solicitante.
- Datos de identidad de la persona deportista promesa.

**Egiaztapen horren aurka egin dezakezu, baina,
kasu horretan, aipatutako dokumentu guztiak
aurkeztu beharko dituzu.**

Aipatutako datuak ofizioz egiaztatzeari uko egin nahi diozu?

**Puede oponerse a esta comprobación, pero en
ese caso deberá aportar todos los documentos
mencionados.**


¿Desea oponerse a la comprobación de oficio de los datos mencionados?

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ofizioz egiaztatzearen AURKA NAGO.	<input type="checkbox"/>	ME OPONGO a la comprobación de oficio de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.
Zerga betebeharrak egunean izatea ofizioz egiaztatzearen AURKA NAGO.	<input type="checkbox"/>	ME OPONGO a la comprobación de oficio de estar al corriente de las obligaciones tributarias.
Eskatzailearen nortasun datuak ofizioz egiaztatzearen AURKA NAGO.	<input type="checkbox"/>	ME OPONGO a la comprobación de oficio de los datos de identidad de la persona solicitante.
Etorkizun handiko kirolariaren nortasun datuak ofizioz egiaztatzearen AURKA NAGO.	<input type="checkbox"/>	ME OPONGO a la comprobación de oficio de los datos de identidad de la persona deportista promesa.

.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma

Orria ■ Hoja 4/4

 <p>FUNDACIÓN Arabako Foru Aldundia FUNDAZIOA Diputación Foral de Álava</p>	DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO BAIMENA (II. eranskina)	2024
	AUTORIZACIÓN DE TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES (Anexo II)	

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos *

NAN/AIZ ■ DNI/NIE *

Telefona ■ Teléfono

Sexua ■ Sexo *

Beharrezko datuak ■ Datos obligatorios*

Datuak babesteko oinarritzko argibidea:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Kirolaraba Fundazioaren titulartasuneko "T38 KIROLARIAK" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua honako xede honetarako erabiliko dira: Arabako kirolarientzako dirulaguntzak kudeatzea.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOK aitortzen dituenak, eta, horretarako, Kirolaraba Fundaziora jo beharko duzu:

Probintzia plaza 5, 3a
01001 PK, Gasteiz -Araba.

Argibide gehiago:

<https://kirolaraba.eus/eu/pribatutasun-politika>

Información básica sobre protección de datos:

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el Fichero denominado "T38 DEPORTISTAS", cuyos tratamientos se realizan para la gestión de ayudas dirigidas a deportistas de Álava.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a Fundación Kirolaraba:

Plaza de la Provincia 5, 3ª,
01001 Vitoria-Gasteiz, Álava.

Para más información:

<https://kirolaraba.eus/es/politica-de-privacidad>

Onartzen dut Kirolaraba Fundazioak nire argazkiak kudeatzea, etorkizun handiko kirolarien sustapenarekin zerikusia duten berri emateko.

Acepto que la Fundación Kirolaraba gestione mis imágenes para la difusión relacionada con la promoción de deportistas promesa.

Lekua eta data ■ Lugar y fecha

Sinadura
FirmaGuraso edo tutorearen sinadura
Firma de la madre/padre o tutora/tutor

Orria ■ Hoja 1/1